

# SARRIKO Ekonomia eta Enpresa Fakultatea Facultad de Economía y Empresa

[www.ehu.eus/es/web/ekonomia-enpresa-fakultatea](http://www.ehu.eus/es/web/ekonomia-enpresa-fakultatea)

2021. urtea, 29-30. aldizkaria



Euskal Herriko Unibertsitatea

NAZIOARTEKO BIKAINTASUN CAMPUSA  
CAMPUS DE EXCELENCIA INTERNACIONAL

## Sarriko 2021

**Aurtengoa urte berezia izan da. Murrizketez eta zalantzez betetako ikasturtea (2020-2021) ondo amaitu dugu unibertsitateko kide guztien ahaleginei esker**

Ikasturte berria (2021-2022) abiarazi dugu aurrekoaren antzeko antolaketarekin, eta zenbait "gorabeherarekin" ere bai, adibidez, plataforma telematikokoaren aldaketak eragindakoa. Pandemiaren bilakaerak, masako txertaketaren eraginez, hasierako antolaketak, desiratutakoa, aldarazi du. Horrenbestez, EHUko kideek ahaleginak egiten jarraitu behar izan dute. Irakaskuntzan, egokitutako aurrez aurretotasunetik zaindutakora igaro gara (maskara, aireztapena...). Gaur egun zerbitzu guztiak irekita eta funtzionatzen daude (ikasgelak, liburutegia, jan-gelak...).

Ezin dugu ahaztu garai bateko normaltasunaren aldaketek unibertsitatea osatzen duten taldeen bizi energian izandako eragina.

Ildo horretan, fakultateak, oro har, eta Sarrikoak, bereziki, kide anitzeko gobernuaren organoak berriro ditu, baita batzorde estatutarioetako ordezkariak ere. Azken berrikuntzak banakako eta taldeko zentzua izan du benetan. Dekanorako hauteskundeak ere izan dira, eta talde horretan eskarmentua eta berrikuntza batzen duen taldea sortu da. Bide batez, eskerrak eman nahi dizkiet postua utzi duten dekanordeei egin du-

ten lan bikainagatik, baita kargua berriro dutenei eta taldean sartu direnei ere beren dedikazioagatik eta eskuabaltasunagatik.

Aldaketak gertatzen ari dira behin eta berriro sortzen ari zaizkigun egoera berritara moldatzen ari garen bitartean. Horregatik, erronkei aurre egiteko prest egon behar dugu. Horien artean nabarmentzekoak dira digitalizazioak eta bilakaera demografikoak eragindakoak. Bi dimentsiotan: barnekoa eta kanpokoak. Pandemiak agerian utzi du beharrezkoa dela digitalizazioari lotutako hausnarketa eta erabakiak hartzea, ikuspuntu akademikitik eta irakaskuntzan izango dituen ondorioak aintzat hartuz. Fakultateak ere ezin du digitalizazioaren arlo sozioekonomikoan izandako eklosiotik kanpo gelditu (esperotakoa zen, baina azkartu egin da azkenaldian).

Ildo berean, bilakaera demografikoak aldaketa kuantitatiboak eta kualitatiboak eragin ditu fakultatean, bai ikasleengan bai AZPko langileengan eta IRIengan. Demografiak, halaber, erronka ekonomikoa eta soziala ekarriko ditu, eta ekarpen akademikoek ezin dituzte baztertu.

Bizi ditugun suspertze eta berreraikitze

garaiek aukera berriak sortu dizkigute: trantsizio energetikoa eta ingurumenaren gaia lehentasun nagusizat harturik. Gure gaitasun akademikitik horietan lagundu behar dugu. Eta ezin dugu ahaztu, noski, modu sinergikoan, tentsio sortzailearekiko eta berritzailearekiko beharrezko sintonia, gure sare sozioproduktiboaren lehiakortasunerako eta gure ingururako hain garrantzitsua. Ziur gaude Fakultateari eta Sarrikori aukera interesgarriak sortuko dizkiela.

Zehazki, legedietan eta erregulazioetan gertatzen ari diren aldaketen ondorioz berregokitu egin behar gara, gutxienez antolaketari dagokionez. Aldaketa horiek aprobetxatu behar ditugu gure eskaintza akademikoaren zenbait gai berritzeko eta eguneratzeko.

Labur esanda, prest gaude aukeraz betetako etorkizunari aurre egiteko, arrisku eta zalantza dosi bat izan arren, sozialki oso posizionamendu egonkorra baitugu (eskaintza akademiko zabalak, nazioartekotzea, praktikaldiak, irakaskuntza duala, ikerkuntza, transferentzia, etab.), betiere, unibertsitate publikoari dagokion zerbitzua emateko asmo irmoarekin.

Jon Barrutia  
Dekanoa

### Fakultateko Denakotza Taldea

Jon Barrutia Güenaga Dekanoa  
Henar Díez Sánchez Idazkari akademikoa  
Bego Antón Más Administrazio burua

### Egoitzako Denakotza Taldea

Alberto Ansuategi Cobo Egoitzako Kordinatzaile eta Nazioarteko Harremanetako eta Mugikortasuneko dekanordea  
Javier García Enríquez Akademi Antolakuntzako dekanordea  
Elena Martínez Tola Graduondoko dekanordea  
Patricia Peinado Martínez Kalitateko, Ikasketa Berrikuntzako eta Ekintzailetzako dekanordea  
Izaskun Ipiñazar Petralanda Gizarte, Etengabeko Prestakuntza eta Enpresa Harremanetako dekanordea  
Unai Tamayo Orbeagozo Euskara, Ikasleen eta Enplegarritasuneko dekanordea

# I. Ikasle Jardunaldiak EHGIN-EcoESS: Sarriko Martxan!

Sarriko "martxan" jarri zen 2021eko apirilaren 22an, 19:00etatik 20:30tara, gure fakultateko EGOITZatik, EHGIN-EcoESS ikasleei soilik eskainitako lehen jardunaldiak egin ziren eta. Jardunaldiotan, graduako titulazio eta maila guztietako ikasleek irakaskuntzako esperientzia batzuk azaldu zituzten, baita EHGIN-EcoESS egituratutako irakasle taldeko irakasleek gainbegiratuta egindako Gradu Amaierako Lanak (GRAL) ere.

Jardunaldietan gure ikasleen konpromisoa ikusi zen, mundu justuagoa, berdintasunezkoagoa eta jasangarriagoa eraikitzeko duten jarrera proaktiboa, eta gogorazi zen gure fakultateatik iraunkortasuneranzko



prestakuntza jaso daitekeela. Hona UPV/EHUK emandako EHGIN-EcoESS taldearen (edIK-Dit zigitua duena) arrazoiak:

iraunkortasuneranzko hezkuntza sustatzea Ekonomia eta Enpresa Fakultatean (EGOITZA), Universidad del País Vasco/

Euskal Herriko Unibertsitatean (UPV/EHU).

*Patricia Peinado*

## Ekonomiaren eta Enpresen Kudeaketaren Mundura Hurbilduz

Ekainaren 18an, "Ekonomiaren eta Enpresen Kudeaketaren Mundura Hurbilduz" jardunaldiak egin ziren Sarrikoko Fakultatean.

Jarduera hori Ikasleentzako Argibide Zerbitzuak (IAZ) antolatuz, euskara, ikasle eta enple-

gagarritasuneko dekanordearekin lankidetzan. Bertan, ikastetxeko hainbat irakaslek parte hartu zuten Batxilergoko ikasleei zuzendutako saio praktikoko batzuekin.

Saio horietan, ekonomia, enpresen administrazioa eta zu-

zendaritza, estatistika, marketinga, zergak eta fiskalitatea eta finantza-matematika kontzeptuak azaldu ziren, modu aplikatuan...

*Unai Tamayo*

## Ekonomiako Olinpiada



UPV/EHUko Ekonomia eta Enpresa Fakultateak eskuratu du batez besteko nota onena duen taldea aurkezten duen fakultatearen saria, Ekonomia eta Enpresa Zuzendaritzako Elkarte Zientifikoak (ACEDE) ematen duena. Olinpiada ekainaren 21a eta 23a bitartean izan zen, Alcalá de Henaresen. UPV/EHUko taldea Jon Ortégak, Daniel Peredak eta Unai Mendiak osatu zuten, lehen hiru sailkatuak izan baitziren Sarrikoko Ekonomia eta Enpresa Fakultateak martxoaren 26an egin zuten tokiko fasean.

Olinpiada txapelketa akademiko eta hezitzailea da, eta aurten hamabigarren edizioa izan du. UPV/EHUK guztietan hartu du parte, eta aurten bigarrenez lortu du talde onenaren saria.

*Mercedes Vallejo*



# Ganteko (Belgika) ENLIGHT T&L Conference 2021-en parte hartzen



## Hegel, Engels eta Leninen jaiotzen urteurrena

Iaz, G.F. Hegel jaio zela 250 urte bete ziren, F. Engels jaio zela 200 eta V.I. Lenin jaio zela 150. Horren harira, Sarrikoko Seminario de El Capital taldeak eta Ekonomia Aplikatua Sailak guztiz aparteko kointzidentzia hori ospatu genuen, Fakultatean abenduaren 15etik 17ra Aro Berriaren Historiako hiru figura esanguratsua horiei buruzko jardunaldi batzuk eginez. Jardunaldi horietan, hiruren pentsamendua kritika materialistaren eta pentsamendu dialektikoaren garapen progresiboko praxi batean lotzeko modua azpimarratu zen.

Hiru online konferentzia egin ziren, BBC plataforman erabiliz. Konferentzia horietan, Lucio Oliver irakasle mexikarrak (UNAM), Manuel Monleón Valentziako Unibertsitateko katedradunak eta Victor Onésimo Martín La Lagunako Unibertsitateko irakasleak hitz egin zuten. Oliver Hegelen pentsamendu politikoaz aritu zen, Antonio Gramsciren ikuspegitik; Monleón, Friedrich Engelsek gaur egungo pentsamendu zientifikoan duen garrantziaz; Martín, berriz, Leninek munduko testuinguru politikoan duen gaurkotasun politikoaz.

Joaquín Arriola

2021eko azaroaren 18an eta 19an, UPV/EHUko Finantza Ekonomia I Saileko irakaslea den Noemí Peña-Miguel eta Politika Publikoak eta Historia Ekonomikoa Saileko irakasle Ricardo Bustillo eta Patricia Peinado Ganten izan ziren, ENLIGHT unibertsitate taldeak irakaskuntzari eta ikaskuntzari buruz antolatutako konferentzia batean parte hartzen. Beren ikertaldeek azken urteetan jasotako ikaskuntza esperientziak aurkeztu zituzten. Noemik taldea osatzen du Javier Corral-Lage, Sonia García-Delgado, Izaskun Ipiñazar-Petralanda eta Ainhoa Saitua-Iribarrekin; Ricardok eta Patriciak, ordea, Begoña Eguia, Catalina Gálvez, Carmen Gómez eta Ana Gonzálezekin.

Ezarritako irakaskuntzako berritasunez gain, horietako bakoitzarekin lortutako emaitzak ere azaldu zituzten

jasangarritasunaren aldeko hezkuntza garatzeko asmoz, zeinak NBERen 2030 Agendako Garapen Jasangarriko Helburuak eta jasangarritasunaren aldeko zeharkako gaitasun profesionalizazioak biltzen baititu. Hasteke, Noemik ikaskuntza esperientzietan erabili duen simulatzaileaz hitz egin zuen, ikasleei aukera ematu

dituzte ikaskuntza kooperatiboko esperientzia horiek, parte hartu duten irakasleentzako arteko lankidetzari esker. Esperientziaren berri eman dute ondoren aldizkari akademikoetan.

Bestalde, Ricardok eta Patriciak Ekonomia eta Enpresa Fakultateko gradu guztietako lehen mailako ikasleek garatutako berrikuntzak azaldu zituzten. Zehazki, 2030 Agenda oinarri hartuta lan-taldeak sortzeko erabili zuten




metodoaz aritu ziren, bai eta 5. GJHaren (Genero Berdintasuna) kompetentziak garatzeko moduz ere –lan merkatuko genero arrakalen zenbaketa gidatutik abiatuta–.

Ainhoa Saitua

## UPV/EHUko Ekonomia eta Enpresa Fakultatearen parte-hartze zabala Ekonomialari Euskaldunen II Biltzarrean

Azaroaren 26an ospatu zen Ekonomialari Euskaldunen II. Biltzarra, Bizkaia Aretoan, Udako Euskal Unibertsitatea (UEU), Ekonomisten Euskal Elkargoa (CVE) eta Euskal Herriko Unibertsitateak antolatuta (UPV/EHU). Jardunaldiaren irekieran EHUKo Ekonomia eta Enpresa Fakultateko Unai Tamayo Euskara Dekanordea izan zen. Eta hizlarien artean gure Fakultateko hiru irakasle eta ikasle bat izan genituen. Laurok partekatu zuten Nazio Batuen 2030 Agendari loturiko informazioa ikuspuntu desberdinetik. Ainhoa Saituak, ingurumen arloko informazio ez-finantzarioaren kudeaketari buruzko proposamena eskaini zuen, Gipuzkoako enpresa txiki eta ertainei (ETE) egindako inkesta batetik ondo-



rioztatuta; Izaskun Ipiñazarek, enpresen arlo soziala eta aginte ona hobetzeko jasangarritasunari buruzko adierazleak erakutsi zituen; Patricia Peinado hizlari gonbidatuak, EAEan 2002-2020 epealdian lan merkatuan eman diren jarduerak, lan eta soldaten genero desberdintasunen bilakaera deskribatu zuen. Azkenik, Maria Martínez

ikasle ohiak, enpresa kotizatuen lagin bat hartuta, administrazio Kontseiluetako kideen partekotasuna eta enpresa horietan dauden soldata arrakalez gain, genero berdintasuna bultzatzeko politikari buruz ematen duten informazioaren balioespina eskaini zuen.

Ainhoa Saitua



## Kaiku, Ekonomia eta Enpresa Fakultateko lehen mailako ikasleekin

Kaikuko zuzendaritzako bi kide gure fakultatean izan ziren azaroaren 17an. Haien bisitaldiari esker, lehen urteko 450 ikaslek baino gehiagok inguruko enpresekiko kontaktua handitzeko aukera izan zuten (220k aurrez aurre eta gainerakoek streaming bidez). Kaikuko marketineko eta estrategiako zuzendari Maider Hormazak eta finantza zuzendari Paulino Lombarderok hitzaldi magistrala eman zuten, 90 minututik gorakoa, esnearen sektorean erreferentia den enpresa horren ezaugarriak esplikatzeko.

Maider Hormazak lau oinarri nabarmendu zituen enpresa azaltzeko: lehenik eta behin, 0 kilometroko politikaren

aldeko eta tokiko ekoizleen aldeko apustua; bigarrenik, merkatu berrietarako saltoa (Txilen eta Tunizian ezarri da); hirugarrenik, berrikuntza ("Esnea baino gehiago gara. Berrikuntza hitzak ondo definitzen du Kaiku. Horri esker iritsi gara honaino. Besteak baino pauso bat aurrerago egon behar gara, lehenak izaten saiatzen beti, inguruan askoz ere baliabide dituzten enpresa handiak baititugu", esan zuen); azkenik, balio erantsia emateko grina, bai bezeroentzat, produktu berritzaileen bitartez, bai langileentzat ere. Enpresa txikia dira, eta argi dute langileak direla beren aktibo handiena. Pasioa, esfortzua, proaktibitatea, merkaturako

orientazioa eta umiltasuna kudeaketako funtsezko balioak dira. Horregatik, langileek markarekiko erabateko konfiantza daukate, baita enpresaren emaitzekiko ere – Paulino Lombarderok zehatz azaldu zituenak–.

Ondoren, ikasleek zalantza argitzeko galderak egin ahal izan zituzten, Enpresa Ekonomiarako Sarrera ikasgairako lan bat egin behar baitzuten.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Maiderrri eta Paulinori beren lankidetzagatik eta dastatzeko ekarri zizkiguten produktuengatik.

*Susana Tejada*

## Irakasleen 2021eko prestakuntza jardunaldiak: garapen jasangarriaren aldeko berrikuntzak gure ikasgeletan

Joan den ekainean Ekonomia eta Enpresa Fakultateko IRlen prestakuntza jardunaldiak izan ziren Kalitate eta Ikasketa Berrikuntza, Ekintzailetzako Dekanordetzaren ekimenez. Edizio bakoitzean, jardunaldiek ikasturte akademiko horretako gai garrantzitsuak lantzen dituzte. 2021ean, irakaskuntza berrikuntza eta jasangarritasuna izan ziren. Online egin zituzten, eta guztira 52 irakasle izan zuten aukera garapen jasangarriaren arloan fakultateak ikasleekin gauzatutako azken berrikuntzei buruz hitz egiteko eta eztabaidatzeko. Historikoki urtero egin den ekitaldiak berretsi egiten du gure unibertsitateko irakasle guztiak ekonomiaren eta enpresaren arloarekin duten konpromisoa eta horretan egiten duten lan ugaria.

*Patricia Peinado*

## Nire ibilbidea Unibertsitatean

Amaia Ruiz de Aguirre lankidea, liburutegiko teknikari laguntzailea, erretiratu berria da eta Unibertsitatean egindako ibilbidearen zertzelada bat eman digu.

1974an hasi nuen, 17 urte nituela, Fakultatearekiko harremana –garai hartan, Bilboko Unibertsitatearena zen–. Goi mailako ikasketak egin ahal izateko, gidatzeko baimena ateratzeko edo pasaporte egiteko emakumeok, nahitaez, «Zerbitzu Soziala» eduki behar genuelako jarri nintzen harremanetan. Nik Fakultateko liburutegia aukeratu nuen hori egiteko.

Liburutegian bukatu eta bi hilabetera, lanpostu bat betetzeko azterketa baterako deialdia egin zuten, gainditu egin nuen, 1974ko uztailan liburutegian bitarteko funtzionario gisa lan egiten hasi nintzen eta erretiratu arte han egon naiz. Gero, bi oposizio egin behar izan nituen: bata, karrerako funtzionarioa izateko; bestea, berriz, mailaz igotzeko.

Lan egiteko moduan aldaketa handiak gertatu dira:

Eskuzko idazmakinatik ordenagailura, idazmakina elektronikotik pasatuta. Azken hori bera, bere garaian, aurrerapen handia zela iruditzen zitzaigun.



Klixean katalogoak eta fitxa bibliografikoak egin eta ondoren multikopistari berregititako katalogoak online izan eta munduko edozein tokitan kontsultatu ahal izatera.

Artikuluak barnean zituzten aldizkariak aurkitzeko katalogo betetako apalategi bat kontsultatu behar izan eta artikuluak jasotzeko hilabete pasatetik datu base eta aldizkari elektronikoak kontsultatu eta dokumentua beharrezko eskuratzera.

Erabiltzailearekin tratua pertsonal hurbila izatetik haren aurpegia ez ezagutzera, izen-abizenak bakarrik.

Fakultateko liburutegian eman ditudan 47 urte hauetan lanera pozik joan naiz eta orain poz handia ematen dit belanaldi berriei lekua emateko eta niretzako denbora libre izateko.

*Amaia Ruiz de Aguirre*

# Ekonomia feministari buruzko VII. kongresua (Ekonomia eta Enpresa Fakultatea-Sarriko, 2021eko uztailaren 1etik 3ra)

16 urteren ondoren, Ekonomia feministari buruzko kongresua Bilbora itzuli zen 2021eko uztailaren 1a eta 3a bitartean, bere zazpigarren ediziorako. «Bizitzaren saregileak. Sare feministak ekonomiaren oinarriak astintzen» lema hautatu dugu funtsezkotzat jotzen ditugulako taldeko lana eta aliantza feministak gizarte mugimenduetan eta diziplina akademikoetan. Kongresua formatu dualean egin zen, eta izena eman zuten 307 lagunetatik 40k baino ez ziren aurretik aurre egon.

Eztabaidak sailkatzeko lau gai hautatu genituen, eraldaketa sozioekonomiko feministarako ezinbestekotzat jotzen ditugunak: kritika ekonomiaren ikuspegi androzentrikoari, zainketa garrantzia, politika publikoen gaitasuna gizartea eraldatzeko tresna moduan

eta bizitzen aniztasun osoari eusten dion ekonomia bat ehuntzeko garrantzia. Gai horiek betidanik izan dira adierazgarriak ekonomia feministari dagokionez, baina, egun, pandemia/sindemia egoera honetan, indar sozial handiz berragertu dira. Hala ere, ezin dugu alboratu egun gobernuak egiten ari diren milioi askoko proposamenetan (zorpetze publiko nabarmenei lotuak) baztertuta gelditzeko arriskua, ez badugu sareak eraikitzen jarraitzen eraldaketa proposamenak egiteko.

Ekonomia feministari buruzko VII kongresuari buruzko informazioa: <https://congresoekonomiafeminista.org/>

*Elena Martínez*



## Aurrezkiaren Eguna

Joan den urriaren 31n, Ana Blanco Mendialdua irakasleak, Finantza Ekonomia II Sailekoak, eta Mercedes Vallejo irakasle eta Ekonomialarien Elkarteko ordezkariak Radio Euskadiko "Más que palabras" irratsaioan izan ziren, Aurrezpenaren



Munduko Eguna zela eta. Tertulian moderatzaile aritu ziren Almudena Cacho (argazkian, Ana Blancorekin) eta Ander Iribar, EITBkoak biak.

Historia pixka bat: 1924. urtean, Aurrezpenari buruzko I. Kongresua egin zuten Milanen (Italia), hainbat herrialdetako ordezkariak aurrezki kutxen antolaketarekin eta legediarekin lotutako gaiez eztabaidatzeko. Saioak urriaren 31n amaitu zituztenez, Aurrezpenaren Munduko Eguna izendatzea erabaki zuten.

Irratsaioan zenbait gai landu zituzten, besteak beste, Espainiako familiek aurrezteko daukaten gaitasuna, pandemiaren ondoren suspertze ekonomikorako dauden aukerak eta inflazioak aurrezpen produktuetan izan dezakeen efektua. Zaila da ondorio bat ateratzea egun ohiko

banku gordailuek ez dutelako errentagarritasunik ematen eta finantza merkatuetan ez dagoelako bestelako aukera askorik. Aurrezpenak berriz ere inbertsio funtsetara bideratzen dira, eta garrantzitsua da erretiroan pentsatzea, baina gazteentzat eta familia askorentzat aurrezte zaila da. Nabarmendu zuten oso garrantzitsua dela finantza hezkuntza eta aholkulari independente bat edukitzea, batez ere inbertitzaileen kasuan, arrisku profilaren eta epearen arabera; eta beste hau: "aurrezki bizitzeko, ez bizi aurrezteko".

<https://www.eitb.eus/es/radio/radio-euskadi/programas/mas-que-palabras/detalle/8420213/ahorrar-que-y-como-ana-blanco-mercedes-vallejo-y-begona-alfaro-en-dia-mundial-del-ahorro-----/>

*Ana Blanco*

## Espainiako Gobernuko hirugarren presidenteorde eta Trantsizio Ekologiko eta Erronka Demografikorako ministroak gure fakultatea bisitatu zuen



Teresa Ribera, Espainiako Gobernuko hirugarren presidenteordea eta Trantsizio Ekologiko eta Erronka Demografikorako ministroa, gure fakultatean izan zen urriaren 18an, astelehena. Gradu aretoan bilera emankorra izan zuen masterretako ikasleekin. Ondoren, bilera aretoan egon zen, energiaren arloko enpresetako ordezkariarekin eta enpregon intentsuak diren enpresetakoekin.

# Ekonomia eta Enpresa Fakultateko bi ikaslek sari bana lortu dute UPV/EHUko ikasleen III. biltzarrean

Ikasleek Garapen Iraunkorreko Helburuen (GIH) inguruko lanak aurkeztu dituzte.

Miguel Fernández Montañaren lanaren izenburua honako hau izan da: "Los conflictos entre socios en los procesos de emprendimiento: una mirada colaborativa", eta Aritza López de Guereño izan da zuzendaria. "Bakea eta Aliantzak" arloan lortu du lanak lehenengo saria. Lan honetan, Zuzenbide Kolaboratiboa aztertzen da, ekintzaitzataldeen barruan sortzen diren gatazken prebentzio eta konponbide alternatiborako mekanismo gisa. Gaur egun, ekintzaitzaitza-proiektuetako bazkideen arteko gatazkek dira proiektu horien porrotaren arrazoi nagusia. Horrek mugatu egiten du ekintzaitzaitzaren fenomenoak aberastasuna, berrikuntza eta norberaren konturako enplegua sortzeko duen ahalmena.

Beste aldetik, Xabier Torres Ugarteren lanaren izenburua honako hau izan da: "El impacto



del Big Data sobre la estrategia proactiva sostenible y el efecto de ésta sobre la responsabilidad social corporativa", eta Julen Castillo Apraiz izan da zuzendaria. "Oparotasuna" arloan lortu du lanak lehenengo saria. Lan

honetan ekuazio estrukturalerako analisi bat egin da, big dataren eragina estrategia iraunkor proaktiboan agerian geratu delarik, eta baita estrategia horren eragina enpresaren gizarte erantzukizun mailan ere.

Informazio gehiago:

<https://www.ehu.eus/eu/web/berrikuntza-gizarte-konpromiso-eta-kulturgintza-errektore-ordetza/sariak>

Julen Castillo

## Finalistak Moot Bitartekaritza eta Negoziazio lehiaketan

Ekonomia eta Enpresa Fakultateko ikasleek Nebrijako Unibertsitateak antolatutako "Moot: negoziazioa eta Merkataritza Bitartekaritza" ekitaldian parte hartu dute. Aritza López de Guereño irakasleak bultzatutako ekimen hau "ikasgelatik kanpoko" formakuntza esperientzia berritzailea izan da. Bertan, Espainiako eta Hego Amerikako unibertsitate-talentuak ezagutza partekatu du, negoziazioko eta merkataritza-bitartekaritzako benetako lehiaketaz moztarotutako ikaskuntza-agertoki baten barruan. Irene Jimenezek, Jonne Mendiolagaraik, Eneritz Espeñak eta Ane Alvarezek osatutako taldeak bigarren postua lortu zuten. Leire Pradak, Aitor Ortizek eta Jon Rocak osatutako beste taldeak ez zuten sailkapen fasea gainditu, bai-

na batzorde antolatzailearen zorionak jaso zituzten, parte hartu zuten txandetan erakutsitako maila altuagatik.

Ekitaldi honetan parte hartzea aukera paregabea izan da UPV/EHUko Zuzenbidea+ADE gradu bikoitzeko ikasleentzat, beren prestakuntza akademikoan eta etorkizuneko garapen profesionalean lankidetzazko begirada bat sartzeko, gatazka konpontzeko mekanismo alternatiboak (ADR izenekoak) erabiliz lege-zerbitzuak emateari ekinez. Jarduera hori prestatzeko, ikasleek lankidetzazko negoziatioari buruzko berriak prestatuak jaso zuten Euskadiko Elkarlan Zuzenbidearen Elkarteko kideen eskutik, Harvard Metodoan oinarrituta.

Aritza López de Guereño

# Ekonomiako Bernácer Sariko Aholkularitza Batzordeko kide

Ekonomia eta Enpresa Fakultateko irakaslea den Javier Gardeazabal Europako Banku Zentralak ematen Germán Bernácer Sariko Aholkularitza Batzordeko kide izendatu dute.

Germán Bernácer Saria izen bereko Alacanteko ekonomialari zenaren (1883-1965) omenez ematen da. Bernácerrek Alacanteko Merkataritza Eskolan egin zituen ikasketak, non 1905ean Fisika Industrialeko katedra lortu baitzuen. 1930etik 1955era Espainiako Bankuaren ikasketen zerbitzuaz arduratu zen.

Banco Santanderrek babesten duen Germán Bernácer sariaren bidez, 30.000 euro ematen zai-



zko urtero 40 urtetik beherako Europako ekonomialari bati, Makroekonomiaren eta Finantzen arloei ekarpen bikain bat egin izanagatik.

Joan den azaroaren 22an, Europako Banku Zentraleko presidenteorde Luis de Guindosek XX. Bernácer Saria eman zion Danimarkako Ralph Koijeni, Chicagoko Unibertsitateko Booth Negozio Eskolako irakasleari, "errenta aldagarriko eta aseguruaren merkatuetako arriskuak balioztatzeke egin duen itzal handiko ikerketa batengatik".

*Javier Gardeazabal*

## 2019/2020 ikasturteko graduatuak aintzatesteko ekitaldia

Ekainaren 24an 2019/2020 ikasturteko graduatuak aintzatesteko ekitaldia egin zen Sarrikoko Areto Nagusian, graduazioko ospakizun egokitua. Ikasleen ordezkari batzuk baino ez ziren aurrez aurre egon (sari bereziak eta bikaintasun aipamena) saileko zuzendari-

kin, administrazio buruarekin eta Sarrikoko koordinatzailearekin batera. Errektoreak zuzendu zuen ekitaldia. Ikasleen Kontseiluko presidente Alejandro García ere hartu zuen parte.

Ikasle guztien orlak proiektatu

zizuten, baita nahi izan zutenek banda jantzita bidalitako selfieak ere (aurretik bidali zitzaizkien etxera). Ekitaldia zuzenean eman zen streaming bitartez. Ekitaldia beharrezkoa, indargarria eta erresistentea izan zen.

*Jon Barrutia*



## 2021. urteko Euskararen Nazioarteko Eguna Sarrikoko Ekonomia eta Enpresa Fakultatean



Joan den abenduaren 3an Euskararen Nazioarteko Eguna ospatu genuen fakultatean. Goiz alai txistu, danbolin eta txalaparta doinuekin hasi genuen. Ondoren, Areto Nagusian kirol profesionalarekin lotura duten ikasle ohien testigantzak entzuteko aukera izan zen. Sabin López de Guereñori omenaldia egin ondoren, fakultateko ikasleentzat eta irakasleentzat antolatutako rap eta txalaparta tailerrekin amaitu genuen jardunaldia.

*Patricia Peinado*

## Innogusi

Carla Baldellou, Xabier Torres eta Leire Zubizarreta, UPV/EHUko Berrikuntzatik eta Nazioartekotzetik Enpresa Zuzendaritza masterreko ikasleak, Mondragon City Challenge izeneko Ekintzailatza Kooperatiboko Nazioarteko Txapelketan finalista izan dira.

Gizarte-ekintzailatzarako proposamenak adinekoen bizi-kalitatea hobetzea du jomuga nagusi, bakardadea eta egungo behar demografikoetara egokitzea gainditzeko saiaturik. Horrek abagunea ematen die enpresa-aukera berriak sortzeko silver economy delakoaren esparruan.

Innogusi, Berrikuntzaren batasuna eta Nagusi lan (adinekoa) izeneko proiektua Master horretan bertan 2020-2021 ikasturtean garatutako ideia batetik abiatuta sortu zen. Hasiera 2021eko urtarrilean eman zitzaion, eta bertan identifikatu zuten zer faktorek eragiten duten bakardadearen murrizketan eta adinekoen hauskortasun-egoeran.

Ondoren, Bizkaiko lurraldean merkatu-azterketa bat egin zuten, 65 urtetik gorako pertsonen parte-hartzearekin, eta egiaztatu ahal izan zuten gizarte- eta jolas-jardueretan parte hartzeak nabarmen murrizten zuela bakardadesentimendua adinekoen ahultasun psikologiko eta sozial handieneko etapetan.

Gizartean aldaketaren eragile izan nahian, 2021eko martxoan, premia horri estaldura emango zion irtenbide teknologiko bat garatzen hasi ziren. Horren ondorioz, Innogusi proiektua sortu zen, adineko pertsonak ahalduntzeko eta tokiko lurralde ekonomiko biziberritzeko. Mondragon City Challengeko lehen edizio honetan 279 taldek hartu dute parte, besteak beste, Txile, Kolonbia, Hego Korea, Estatu Batuak, Mexiko, Zimbabue eta Espainiatik etorritakoak. Carla, Leire eta Xabierrek aurkeztutako Innogusi proiektu ekintzaila hiru finalistetako bat izan dira. ZORIONAK!!!!

*Amaia Maseda*



## Garapen Iraunkorrerako Helburuak Enpresa Txiki eta Ertainen (ETEen) txosten korporatiboetan uztartzeko gida

2021eko urriaren 7an, Ekonomia eta Enpresa Fakultatean (Sarriko-egoitzan) diharduen Finantza Ekonomia I saileko Javier Corral-Lage irakasleak, BNFIX kontabilitate eta auditoretzarako aholkularitza-enpresarekin lankidetzan egindako ikerketa-proiektua aurkeztu zuen, Sonia García-Delgado, Izaskun Ipiñazar-Petralanda, Noemí Peña-Miguel eta Ainhoa Saitua-Iribar irakasleek osatzen dute UPV/EHUko ESG-PYME ikerketa-taldeko arduraduna izan delako. Proiektu horren barruan, enpresa txiki eta ertainentzat (ETE) jasan-

garritasun-txostena egin eta egiaztatze gida praktikoa bat argitaratu da, borondatez aplikatzeko. Adierazleak ETEek bereaiek proposatu di-



tuzte, UPV/EHUko ESG-PYME taldeak egindako inkestan lortutako erantzunen bidez, ingurumen, gizarte eta gobernantzako 20 adierazle hautatu.

Gaur egun, enpresa txiki eta ertainak ez daude legez behartuta horrelako informazioa ematera. Hala ere, hainbat interes-talderen eskaerek, hala nola enpresa handien produktuen eta zerbitzuen trazabilitate-prozesuek, enpresa txiki eta ertain horiek, modu batera edo bestera, informazio iraunkorra emateko beharra eragingo dute. Gida honek tresna bat izan nahi du edozein motatako erakundek Garapen Iraunkorrerako Helburuak (GIH) lortzen laguntzeko, zer lehenetsun hartu

behar dituen jakin ahal izateko, eta haien eragina modu eraginkor eta konparagarrian neurtzeko. Horrela, informazio konparagarria, egiaztagarria eta jasagarria lantzen lagunduko die erakundeei, eta honako onura hauek emango dizkie: kostuetan aurreztea, irudi korporatiboa hobetzea, giza baliabideen zuzendaritza hobetzea, enpresa-kultura motibatzaile, inklusibo eta GIH-etan zentratua sortzea, etorkizuneko araudietara egokitzea eta jarrera iruzurti eta desegokiak murriztea, gizarte- eta ingurumen-kudeaketa hobetzea, aliantza berriak sortzea eta negozio-aukerak areagotzea.

*Ainhoa Saitua*



## Gobernu deszentralizatuen erantzuna COVID-19aren krisiari



2021eko azaroaren 16an eta 17an, UPV/EHUko Ekonomia eta Enpresa Fakultateko hiru irakasleek "Gobernu deszentralizatuen erantzuna COVID-19aren krisiari" izeneko Nazioarteko Kongresuan hartu zuten parte. Zehazki, Politika Publikoak eta Historia Ekonomikoa Saileko irakaslea den Mikel Erkoreka eta Andoni Montes eta Finantza Ekonomia

Saileko irakasle Robert Ugalde izan ziren. Nevadako Unibertsitateko (Reno) The College of Business zentroak, Center for Basque Studies-ek eta Bizkaiko Foru Aldundiak antolatu dute, Gemma Martínezen, Xabier Irujoren eta Mehmet Tosun-en zuzendaritzapean. Aurten online egin dute lehenekoz. Parte hartzaileak eta kongresuko zuzendariak Itun Ekonomikoaren



eta Foru Ogasunen Ikerketarako Agiritegiko (UPV/EHU) ikertzaileak eta kolaboratzaileak dira, hurrenez hurren.

Ekitaldiaren helburua zen pandemiak maila askotako egitura instituzionalen finantza publikoetan izan dituen ondorioak aztertzea, baita egitura horiek krisialdi sanitario eta ekonomikoari emandako

erantzuna ere, konparazio ikuspuntu batetik. Horretarako, hizlariak Estatu Batuetako, Suitzako, Foru Aldundietako eta Europar Batasuneko kasuak aurkeztu zituzten.

Hurrengo hiletan, Centre for Basque Studies-ek hitzaldi guztiak biltzen dituen liburua argitaratuko da.

*Andoni Montes*

## Uda honetan, 2022an, enpresako etikako kongresurik handiena antolatzen dugu: "enpresako etikaren olimpiadak"

2022ko uztailean izango den Negozio, Ekonomia eta Etikako Nazioarteko Sozietatearen VII. Munduko Kongresua antolatzen laguntzen ari da gure fakultatea. 2020ko udan ospatzekoa zen ekitaldia atzeratu egin zen pandemiaren ondorioz.

Azkenean, baina, aurten aukera izango dugu herrialde eta diziplina zientifiko askotako akademikoek, profesionalek eta ordezkariek aurrez aurre egoteko, unibertsitatek gizartea eraldatzen laguntzeko. Esan bezala, 2022ko uztailearen 20tik 22ra izango da kongresua Bilbon (informazio gehiago: [www.ehu.eus/isbee2022](http://www.ehu.eus/isbee2022) eta [www.isbee.org](http://www.isbee.org)).



Alderdi txarra alde batera utzita, pandemiak alderdi positiboak ere izan ditu. Adibidez, denok elkarrekin gaude honetan; beraz, ikasitakoei jaramon eginez, indarrak batuz soilik ahal izango dugu lankidetzan aritu munduaren beharrei erantzuteko, eta gizateriaren

erronka nagusiei aurre eginez, elkarlanean, inklusiotik eta efizienteki.

Kongresuaren helburua da enpresak etikoki gizarteratzen laguntzea, zehazki, erakunde eta administrazio publikoen muinean, erabateko integrazioa lortzeko. Horixe

da kongresuko lemak dioena: "globalizazioa berrasmatea: komunitatea, ahalmenak eta helburuaren boterea". Erronka handi bat daukagu eta unibertsitateko kideak eta Ekonomia eta Enpresa Fakultateko pertsonak parte hartzera gonbidatu nahi ditugu, haiek gabe ezingo

baitiogu aurre egin.

Thomas Maak, ISBEEren Batzorde Exekutiboko presidentea, eta Leire San-Jose eta Jose Luis Retolaza, Antolakuntza Batzordeko presidentea

*Leire San José*

# PLS-SEM inguruan gaztelaniaz Argitaratutako Eskuliburua

Finantza Ekonomia II (UPV/EHU) sailean lan egiten duen Julen Castillo ikertzaileak beste kide batzuekin batera "Advanced issues in partial least squares structural equation modeling" liburuaren itzulpen eguneratuta argitaratu du gaztelaniaz, ondorengo erreferentzia duena:

Hair Jr., J. F., Ringle, C. M., Gudergan, S. P., Castillo Apraiz, J., Cepeda Carrión, G. A., & Roldán, J. L. (2021). Manual avanzado de Partial Least Squares Structural Equation Modeling (PLS-SEM). Terrassa, Barcelona, España: OmniaScience. <https://doi.org/10.3926/oss.407>

ISBN: 978-84-122028-7-8

Ekuazio estrukturalen modelizazioa, zalantzarik gabe, etengabe eboluzionatzen eta hazten ari den teknika bat da. Ondo erabilia, PLS-SEM modelizazio tresna egokia da ikerketa-testuinguru askotan.

Partial Least Squares Structural Equation Modeling (bigarren edizioa) eskuliburuaren heda-

pen gisa sortu da eskuliburu hau. Erraz erabiltzen den gida praktikoa honek PLS-SEM eduki aurreratua barneratzen du, ikasleei eta ikertzaileei ikerketa-arazoei buruzko teknikak aplikatzen eta emaitzak behar bezala interpretatzen laguntzeko.


Liburuak oinarrizko kontzeptuen laburpen bat ematen du, alderdi aurreratuagoetan zentratu aurretik. Gainera, SmartPLS 3 ([www.smartpls.com](http://www.smartpls.com)) softwarean oinarritutako adibide anitz eskaintzen ditu eta doan deskargatzeko datu-baseak dakartza. Liburuan azpimarratzen den bezala, arreta handiz aplikatu behar da PLS-SEM edozein ikuspegi, ikerketaren testuinguruarekin eta datuen ezaugarriekin bat datorrela ziurtatzeko.

Funtsezko ezaugarri hauek ditu:

– Formula, ekuazio, sinbolo eta antzeko notazioen erabilera mugatuak kontzeptuak erraz ulertzea eragiten du.

## Manual Avanzado de Partial Least Squares Structural Equation Modeling (PLS-SEM)

Joseph F. Hair - Marko Sarstedt - Christian M. Ringle - Siegfried P. Gudergan  
Julen Castillo Apraiz - Gabriel Alfonso Cepeda Carrión - José Luis Roldán



- Kapitulu bakoitzean arau praktikoak daude, PLS-SEM aplikatu eta interpretatzeko jardunbide egokien gida zehatzak ematen dituztenak, eta aldizkari zientifikoetan argitaratuko diren artikuluak prestatzen laguntzen dituztenak.
- Adibide eta datu-base bera erabiltzen da liburu guztian zehar, proposatutako kasua-

- rekin konsistentzia errazteko.
- Doan deskarga daitekeen baliabide multzoa dago: datu-baseak eta SmartPLS proiektuak, planteatutako teknikak praktikatu ahal izateko.
- Itzulpen eguneratua da, PLS-SEM inguruko garapen berrien orri-oinetan dituenak.

Julen Castillo

## Trantsizio Energetikoaren eta Klima Ekintzaren Behatokia martxan jarri da

Cristina Pizarro-Irizarrek, Ekonomia eta Enpresa Fakultateko Análisi Ekonomikoa Sailleko (ANEKO) irakasle, Bilbao Research Team in Economics (BiRTE) taldeko kide eta Basque Centre for Climate Change (BC3) zentroko ikertzaile atxikiak, Trantsizio Energetikoaren eta Klima Ekintzaren Behatokia (OTEA) martxan jartzean parte hartu du, 2021eko martxoan. BC3 buru duen ekimen bat da OTEA eta trantsizio energetikoaren eta klima-ekintzaren arloan aditu diren BC3ko eta UPV/EHuko diziplina anitzeko ikertzaile multzo batez osatuta dago.

Gizarteari Espainiako trantsizio energetikoaren jarraipen zehatzagoa egiteko informazio fidagarri, eguneratu eta eskuragarri

multzo bat eskaintzea da behatokiaren helburua. Horretarako, gizartea informatzeko eta erabaki-hartzea hobetzen laguntzeko metodologia berriak eta ikerketak egingo ditu. Gainera,



trantsizio energetikoa ez denez auzi teknologiko edo energetiko hutsa, OTEAk gizarte-, ekonomia- eta ingurumen-dimentsio handi bat ere badu, eta 100dik gora adierazle barne hartzen

ditu, trantsizio energetikoaren alderdi guztien ikuspegi zabal bat emateko: pobrezia energetikoarena eta energiaren sektoreko genero-dimentsioarena, besteak beste.



Irekiera ekitaldia online egin zen, 2021eko martxoaren 29an, eta partaideak honako hauek izan ziren: Teresa Ribera, Espainiako Gobernuko laugarren presidenteordea eta Trantsizio

Ekologikoaren eta Erronka Demografikoaren ministroa, zeinak behatokia sortzearen garrantzia nabarmendu baitzuen; eta Jokin Bildarratz, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntzako sailburua, zeinak klima-aldaketaren arloko bikaintasun-ikerketan eta gizarte osoari zuzendutako dibulgazioan egingo duen ekarpenaren balioa azpimarratu baitzuen.

Behatokirako sarbidea: <https://otea.info/>

Aurkezpen-bideorako sarbidea: <https://bit.ly/3EIGq3s>

Irekiera-ekitaldiko bideorako sarbidea:

<https://bit.ly/3IHgtUd>

Cristina Pizarro-Irizar

## Sarrikoko Kapitala mintegiko jarduerak

Beste urte batez, El Capital (Kapitala) irakurtzeko urteroko mintegia egin da, Ekonomia Aplikatua Sailak eta Sarrikoko Seminario de El Capital taldeak babestuta. Ikasturte honetan, saio guztiak BBC plataformaren bidez egin dira eta hamabostean behingo saioetan Karl Marxek 1862 eta 1863 bitartean idatzitako Teorías sobre la Plusvalía (Gainbalioari buruzko teoriak) eskuizkribu luzearen hiru liburukiei buruz eztaba datu da. Datorren ikasturtean, 1958-1959ko Grundisse eskuizkribuen irakurketa partekatua egingo da.

Gainera, ikasturte honetan, berriz ere, El Capital liburuaren

I. liburukiaren irakurketa-mintegia egin da, hori ere hamabostean behingo saioen bidez. Ikuspegiak zabalduz, ikasturte honetan, Marxismo y Cuestión de la Mujer (Marxismoa eta emakumearen auzia) tailerra egin da astean behin. Mintegi horretan, Espainia, Guatemala eta Mexikoko hizlariak izan dira eta, izena emandako artean, herrialde askotako jendea zegoen, besteak beste, Serbiakoak eta Iberoamerikako honako herrialde hauetakoak: El Salvador, Honduras, Kolonbia, Peru, Argentina eta Txile.

Joaquín Arriola



## PesMes sarien banaketa gure fakultatean

Azaroaren 12an, Ekonomia eta Enpresa Fakultateren egoitzan (Sarriko) Marketineko Masterreko sariak banatzeko ekitaldia egin zen (PesMes, 2021). Sariak marketineko estrategiak eta ekintzak saritzen dituzte, bai Euskadiko enpresenak, bai kanpokoak, baldin eta proiektuetako partaideen artean badaude UPV/EHUko Marketin eta Merkataritza Zuzendaritza Masterreko, Executive MBAko, MBAe3ko zein Marketineko eta Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Graduak irakasleak edota ikasleak.

Berrehun pertsona baino gehiago (agentziak, iragarleak, marka pribatuak eta publikoak, ikus-entzunezko ekoizpen enpresak, hedabideak, diseinu grafikoko agentziak eta unibertsitatea) bertaratu ziren aurkeztutako 51 proiektu bikainen gaineko balorazioa ezagutzera.

Marketineko ekintza espezi-fikoko bederatzi kategoriatako sariak eman zituzten:

- **Bilgarriaren diseinua:** Aidedarteri, Furoshiri egindako bilgarriatik.
- **Produktua:** Zorraquinori, EiTbren aplikazio berriaren

diseinuagatik.

- **Banaketa:** Ekhiri, La Salve garagardo markarentzat sortutako konfinamendurako banaketa estrategia-gatik.
- **Marka identitatea:** Orbeari, Hiru marka berriaren diseinuagatik.
- **Komunikazio grafikoa:** Nei-

noreri, etxebizitzak saltzeko zenbait kanpainarengatik.

- **360º komunikazioa:** Dimensióneri, Laboral Kutxarentzat sortutako ekintzengatik.
- **Marketin industrialia:** Ismarkeri, Duplostockentzat sortutako marketin industrialeko kanpainengatik.
- **Marketin publikoa:** Siroperi,

Ecoembesek eskatutako birziklajea sustatzeko kanpainagatik.

- **Barne marketina:** Ausolaineri, "17 emakume" izeneko barne marketineko ekintzarengatik.

Gainera, beste sari hauek ere eman zituzten:

Mikroenpresa batentzako PesMes saria: Osito & Cori, oso baliabide ekonomiko urriekin produktuak gartzeko eta komunikazioaren aldetik nabarmentzeko gaitasunagatik.

Marketineko ekintza oso batentzako PesMes saria: Aloha Pokéri, elikagai osasungarriko jatetxeentzat sortutako marketin kontzeptuagatik eta ekintza osoengatik.

Hona hemen ekitaldi bikainaren bideoa eta argazki guztiak.

<https://bit.ly/3IJqMXQ>

<https://bit.ly/31Qf2lx>

Covadonga Aldamiz-Echevarria

